


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2013KO EKAINA

EAEko eraikuntza-kostuak % 0,8 jaitsi ziren 2013ko ekainean, aurreko hilarekin alderatuta

lazko hil beraren aldean, 2012ko ekaina, eraikuntza-kostuak ez dira aldatu (% 0,0)

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,8 jaitsi zen 2013ko ekainean aurreko hilaren aldean. Bestalde, hil horretako urte arteko tasa ez da aldatu (% 0,0), EUSTATEk emandako datuen arabera.



Aurreko hilekoaren aldean, 2013ko ekainean ez da aldatu eskulanaren kostua, baina lehengaien kostuak % 1,1 jaitsi dira.

Etxegintzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreen joera lehengaiena bezalakoa izan da, ekaina eta aurreko hila alderatuz gero; hau da, bi azpisektoreetako kostuak % 1,1 jaitsi dira. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaerari dagokionez, Etxegintzako lehengaien kostuak % 0,2 jaitsi dira eta % 0,7, aldiz, Obra Zibilekoak.

Sektorean kontsumitutako lehengaien prezioei dagokienez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, industria ez-metalezkoa (% 3,1), petrolioa fintzea (% 2,2) eta makineria (% 2,0) dira. Kontrara, urte arteko prezioa (2013 ekaineko prezioa 2012ko ekainekoaren aldean) gehien jaitsi diren lehengaiak

metalurgiaren sektorekoak (-% 5,6), energia elektrikoa eta gasa (-% 5,1) eta mineral ez-metalezkoak (-% 1,4) dira.

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK. 2013KO EKAINA (p)

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m / m-1	m / m-12	m / abendua
GUZTIRA	102,9	-0,8	0,0	0,6
ERAIKINAK	102,7	-0,8	0,0	0,6
OBRA ZIBILA	104,4	-0,8	-0,3	0,4
LEHENGAI A	102,8	-1,1	-0,3	0,4
ERAIKINAK	102,5	-1,1	-0,2	0,4
OBRA ZIBILA	104,6	-1,1	-0,7	0,3
LAN-ESKUA	103,6	0,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100

(p) behin-behinekoa

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua